



231. zenbakia

UZTAILA 2023

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



LURREA BOTAS IKASTEN DA OÑES

Izotzilletik abendure,
udondo zein udazken,
argiasteko eguzkiek 'egun
on' erraten du Muskitzen
ta iuzkii bea Goldaazko iuntzitan
illunaarrin ortzitzen.
Tartean Oskotz, Etxaleku, Zarrantz,
Eraso, Latasa, Urritze,
bide guzian ikusle.

Kalmak, lankarra, iurii o eurie,
itxetan ekea eta jainkoam
paxa dotore.
Erri oken mintzoa,
antzeko ta diferente,
bakotxa bakarra, berezi eta aparte,
denak ederrak dee.

Kontzientzik illarrosteko
espa aundii,
mantso-mantso bagoazi,
atzendu biño len nola
zitzaion gue jolasai,
euskéra, éuskiá, iúskeá.

Oianeko larrak garbitzeko
demboa da ta
ez gattezen galbandu,
iratzarrik ertxi begik,
imajiña ditzaun goo mendik
beis e euskias josirik.
Aldion bat etorko ote
non arro esain duun:
"Noizpatte izandu zena
biziberritu duu"



Alazne Fernandez de Muniain

Hautatu



3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

komunikazioa


Esan Erran Irratia
107.9 FM



pulunpe

amezti 

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

AURKIBIDEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok bat elkarteak, Edurne Gerendiain, eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Suzko zezena, Ostizko pestetan. Egilea, Diego Ibañez.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira uztailearen 5ean bidalia

04

Erreportajea. *Belateko lapurrak II*

07

Ingurumena. *Sorgin-orratzak*

08

Kronika. *Denok bat*

10

Euskara erreza. *San Juan suak*

11

Albisteak.

15

Herrian bertan, zergatik ez. *Erbisiko egur xehetzailea*

16

Elkarrizketa. *Pello Echeverria, Lanzko ostalaria*

20

Erreportajea. *Olagueko behi pirenaikak*



22

Elkarrizketa. *Kepa Mateorena, Oihanzabalgo zuzendaria*

24

Aspaldiko Kontuak. *Miguel Goñi Olias, Basaburuko azken arotza (II)*

27

Ardo Frexkoa. *Euskaradak eta erdarakadak*

28

Kirola. *Izotz irristaketa*

30

Zer ikusi amezti.eus-en

32

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*



lapurrak II

Zenotz anaiez gain, nor gehiago zegoen tartean, eta nola harrapatu zituzten?

Aurreko Pulunpe aldizkarian Martin Tellonek Belateko lapurren inguruan egindako ikerketaren lehen zatia argitaratu genuen. Lapurren artean Lanzko Zenotz anaiak izan ziren ezagunenak, baina ez bakarrik. Horretan utzi genuen kontua aurreko alean, eta horretatik abiatuko gara gaurkoan. Anaiez gain, nor gehiago zegoen tartean?

Belateko lapurren artean bazeuden, Zenotz anaiez gain, beste hiru lagun ere. Horietako batzuk, gainera, hasmentatik hartu zuten parte lapurretetan.

(Juan) Bautista Lantz: Bautista Lanzkoa zen, eta oso altua. Ia lapurreta guzietan parte hartu zuen hasmentatik, eta Pedro Zenotzek bezala, Diego Zufiaurreren hilketan ere parte hartu zuenez, urkatu egin zuten. Bere egoera Juan Zenotzen antzekoa izan zitekeen: familiaren burua zen eta bere familia zaindu behar zuen... ebastea izan zatekeen bere irteera bakarra.

Martin (José) Perusanzenakoa: Taldeko azken kidea ere Lanzkoa zen, eta aktiboena dugu. Oso pobrea zen, nahiz eta kapare etorkikoa zen, eta herriko apezaren iloba zen. Hasmentan, sei lapurretetatik bostetan parte hartu

zuen, baina Diego Zufiaurre hil zenekoan ez, eta horrek bere bizitza salbatu zuen.

Baina oso arraroa da lapurreta horretan ez parte hartzea. Kasualitatea izan al zen? Edo bere jatorri nobleak edo bere osaba apezak eragin zuten lapurreta horretan parte hartzeagatik akusatua ez izatea eta horrela bere bizitza salbatzea?

Inazio Armasa: Traidorea. Hiru lapurretetan parte hartu zuen baina bere adiskideek bi aldiz engainatu zutela pentsatu zuen, eta salatu egin zituen. Bere deklarazioa garrantzitsua izan zen taldea inputatzeko. Kideak salatu zituenez errugabe jo zuten kargu guztietatik. Moral onaren adibidea, baina bere traizioarekin lau lagun hil zituen. Hiltzailerik handiena zela esan liteke.





Gezurrak

Belateko lapurren historia ahoz aho zabaldu zen, eta haien krimenak puztu egin ziren zein maltzurak ziren erakusteko.

Agian gaiztoak izan ziren, edo agian gaiztoak izatera behartuak izan ziren... Dena dela, hauek dira kontatu ziren istorio faltsuetako batzuk:

- Hilketa kopurua

Kontakizunek zioten hamalau lagun hil zituztela. Ikusi den bezala, Belateko lapurrek hiru lagun hil zituzten (Diego Zufiaurre, Juan Antonio Berrio eta Tomas Indart). Justiziak, berriz, lau lagun urkatu zituen: Juan Zenotz, Pedro Zenotz, Martin Zenotz eta Bautista Lantz.

- Haurdun zegoen emakumea hiltzea

Kondaira bat zabaldu zen: lapurrek haurdun zegoen emakume bat hil zutela. Haien lehengusina zela zioen kondairak, gogor zauritu zutela, amildegi batera bota eta harrika hil zutela. Ustez hori izan zen bere krimenik

beldurgarriena, baina gezurra zen. Indart hilketaren antza izan zezakeen.

- Nola harrapatu zituzten

Hainbat istorio kontatu ziren honen inguruan. Zabalduenetako bat zen herriko talde batek harrapatu zituela (agian Juan Antonio Berrioren gertaerekin nahasi zen). Bertze bat, herriko jendeak ostatuan segada jarri ziela. Egiaz, Martin Olagueren salaketak eta Inazio Armasaren traizioak eragin zuten lapurrak atxilotzea.

- Anaia txikiena

Bertze kontakizun batek zioenez, bere anaiak urkatzen zituzten bitartean, anaia txikia haien heriotzak ikustera kondenatu zuten, lepoan soka bat paratuta. Baina hori ere gezurra zen. Anaia txikiak ez zuen deusetan parte hartu, eta ez zuten kondenatu. Egia erran, bizitza osorako kondena bat izan zuen: bere hiru anaien heriotzaren mina eta bere laugarren anaia eta koinata preso hartzea. Nahiz eta oso gaztea izan, etxearen arduradun bezala gelditu zen, eta errua eta lotsa bere gain hartu behar izan zituen.





Belateko lapurrak II



ZORTZIKO

Aita Donostiak Belateko lapurren zortzikoaren letra eta melodia jaso zituen, eta Oskorri taldeak duela gutxi bertsioa egin zuen. Gozatu!

Belateko lapurrak eta inauteriak

Bi teoria daude: bata Lanzko inauteriek Belateko Bi teoria daude: bata, Lanzko ioteek Belateko lapurren historia kontatzen dutela dioena, eta bertzea, zerikusirik ez duela dioena. Ni bat nator bigarrenarekin.

Hasteko, ioteak besta alaiak dira eta lapurren historia, berriz, oso gordina eta tristea. Jarraitzeko, herrian ez zen historia desatsegin horretaz hitz egin nahi, eta, beraz, ez du zentzurik atzendu nahi dena gogoratzeak.

Hori gutxi balitz, herrian lapurren senideak bizi ziren, eta herri txiki batean etxe asko senidetuta daude. Nola ospatuko da senideen edo bizilagunen heriotza? Gainera, zortzi urte pasa eta gero, lapur batzuk kartzelatik Lantza itzuli ziren (Joaquín Zenotz, Antonio

Arrijuria, Antonio Etxegarai eta Kruz Iraitzoz). Nola egingen zieten iseka aurrez aurre?

Eta gauza bera gertatzen da biktimekin. Sufritu zutena ez zen irri egitekoa.

Baina egia da antzekotasun bat badagoela: Miel Otxin lapurra zen.

Iruñetik Frantziarako bide nagusiak Lantz zeharkatzen zuen. Bidaiatzen zutenak diru anitzekin, merkatariak ziren, beraz, ulertzekoa da diruak lapurrak erakartzea.

Horregatik guztiagatik, bat nator historialari askoren iritziarekin, uste baitute Lanzko ioteak hastapen-erritu primitibo batean duela jatorria, nahiz eta iritzi asko dauden esanahiari buruz.





Burruntzia

Europako intsekturik handienetakoa

Tximeletak bezala, izen ugari ditu. Esate baterako burrunzia, sorgin-orratza, mariburduntzi edo mariorratza. Deabruaren zalditxoekin nahastu ohi dira, baina, nahiz eta familia berekoak izan, ezberdinak dira. Burruntziak aurkitzen ditugun errekek eta aintzirak garbiak eta osasuntsuak daudela adierazten digute. Eta, burrunzti enperadorea (Anax Imperator) Europako intsekturik handienetakoa da.

Anisoptera azpitaldekoak dira, odonatoen barruan. Odonata talde horretan aurkituko ditugu deabruaren zalditxoak ere, baina hauek zygoptera azpitaldekoak dira. Odonata izena grezieratik dator eta horzdun esan nahi du. Izan ere, antzina hortzak zituztela sinesten zuten. Oker zeuden, baina egia da baraila sendoak dituztela eta haiekin harrapakinak txikitzeko gai direla.

Esan bezala, deabruaren zalditxoek oso antzekoak dira, baina ezberdintasun asko aurkitu ditzakegu bien artean. Deabruaren zalditxoek gorputza luzeagoa eta meharragoa da; burrunziena, ordea, sendoagoa. Deabruaren zalditxoek hegoak gorputzaren gainean biltzen dituzte, burrunzietan, ordea, zabalik uzten dituzte geldirik daudenean. Gainera, deabruaren zalditxoek ez bezala, burrunzietan hegan doazela ehizatzen dituzte harrapakinak; eta, altuago egiten dute hegan.

Hainbat ezaugarri:

1. Ikusmen gaitasun izugarria:

begi handi konposatuak dituzte, haien gorputzarekin alderatuta, oso handiak. Begi bakoitza 28.000 unitatek osatzen dute, ommatidia izena du elementu horietako bakoitzak. Horrela, ikusmen gaitasun panoramiko izugarria dute eta garunaren %80 ikuste informazioa aztertzeraz zuzentzen dute.

2. Haize akrobatikak:

72 kilometro orduko abiadura lortu dezakete, kolibri baten hegazkaden abiaduraren antzera. Hala ere, harrigarriena da erraztasun izugarriarekin lortzen dutela. Euliak bezalako beste intsektuek ez bezala, 1000 eta 600 hegazkada behar dituztenak, burrunzietan minutuko 30 hegazkada besterik ez dituzte behar!

3. Distantzia handiak egin ditzakete!

Migratzaileak dira eta talde handietan mugitzen dira. Pantala Flavescens espeziea nabarmenduko dugu hemen, 17.000 kilometroko ozeanoz bestaldeko bidaiak egin baititzake.

4. Ipurditik hartzen dute arnasa:

ninfa dsirenean abdomenaren bukaeran dituzte brankiak. Burruntzi ninfak ura sabelaldearen amaiera horretara bultzatzen du eta bertan arnasteko behar duen oxigenoa hartzeko gas eraldaketa gertatuko da.

5. Antzinako intsektuak:

Dinosauroak Lurrari agertu baino askoz lehenago bizi ziren Burruntzien jatorrizko animaliak Karbonifero garaikoak dira, hau da, duela 300 milioi urtekoak. Itxuraz gaur egungo burrunzietan oso antzekoak ziren, ezaugarri bat kenduta... 72 zentimetro neurtu zitzaizkete hego batetik bestera!

6. Uraren egoeraren adierazlea:

Aintzira edo erreketan burrunzti asko ikusten baldin baditugu, uraren kalitatea ona dela esan nahi du. Burruntzi espezie gehienek habitat ezberdin eta anitzeko tokiak nahiago dituzte. Gainera, asko eragiten diete PHan eta tenperaturan aldaketek, kutsadurak eta mugimenduan dagoen ur kantitateak.



▲ Sorgin-orratz enperadorea. Iturria; Waste Magazine



Ekaina, bidaiatzeko garaia

Oraingoan ekainean zehar egindakoari buruz joango da kontakizuna. Bi bidai berezi aipatu behar ditugu eta, bestetik, egun bateko txangoa. Ekainaren 1etik 6ra Portugal aldean ibiliak dira gure kide batzuk, 27 hain zuzen.

Lehenengo egunean Oporto barna ibili ziren, goizez; eta, arratsaldez, Duero ibaian paseotxoia egin zuten txalupaz.. Bigarrenetan, Amarante, goizez, eta Penafiel, arratsaldez, bisitatu zituzten, biak ikusgarriak. Hirugarrenean, goizez, Braga, eta, arratsaldez, Guimaraes, Unescok Gizateriaren Ondare izendatu zuen hiria.

Laugarrenean, goizez, Aveiro, Portugalgo "Venezia", eta, arratsaldez, Ovar, bere kostalde ederrak eta azulejo famatuak ikusiz. Ikusitakoa ederra izanik, eduki zuten giroaz oroitzen dira eta elkarrekin pasatako bizipozak entzuten zaizkie. Bejondeizuela, horretarako dira, batez ere, elkarrekin egiten diren bidai hauek.

Arkupeak taldeak antolatutako Noruegarako bidaiaren gure taldetik 12 lagun joan ziren, ekainaren 2tik 9ra. Kruzero ederra egin dutela esanez etorriak dira. Hainbat hiri eta leku ikusi dituzte: Kiel, Copenhagen, Hellsylt, Geiranger,

Haugesund, eta Stavager barne.

Txangoak oso politak izan zirela esan ziguten baino kruzeroko antolakuntza, garbiketa eta zerbitzu ona nabarmendu dituzte eta, aukera izanez gero, horrelako batera joatea gomendatu dute.

Eta ekaineko txangoa 22an, ostegunarekin, egin genuen. Burgin hasi genuen bisita, gosaria eginez eta Larra gaztandegia ikusiz. Gero Erronkari herrira joan ginen Julian Gayarrerren museoa eta Erronkariko Natura Zentroa ikustera. Handik Otsagabiara bazkaltzera Isaba, Uztarroz eta Izalzu zeharkatuz.

Bazkal ondoren Otsagabiako herria ikusteko aukera aprobetxatu genuen, arratsaldeko 19:00etan autobusak hartu eta etxera itzuli baino lehen.

Beste aldetik, Gizarte Zerbitzuarekin lankidetzan, boluntario talde bat antolatu nahi dugu, adinekoei aisialdirako guneak eskaintzeko (paseoak, lagun-egitea, solasaldia,

karta-jokoa...). Parte hartu nahi baduzu, eman izena 948305353 telefonora deituta.

Uztailean, kalderetea dugu!! Hurrengo alean kontakutako dizuegu uztailekoa eta abuztukoa.

Bitartean osasuntsu egotea opa dizuegu.



**Denok Bat
Jubilatu**en Elkarte



Portugal ▲



Noruega ▲

KUL TUR

2023

ekainak 24 /
irailak 09

PROGRAMAZIOA



Udako kultur programazioa.

Estilo guztietako musika, dantza,
antzerkia eta askoz gehiago

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030



ABUZTUA

12 Lizaso-Orgi



Euskal Herrian bezala, Europa osoan ospatu izan den jaia

Europa osoan ospatu izan den jai hau zahar-zaharra da, eta badirudi loturik dagoela Paleolito Aroan kontinentea populatu zuen herri ibiltari, ehiztari eta biltzaile zahar harekin. Herri protoeuskaludnarekin, alegia. Jai honen jatorria naturako indar **menderaezinak** nolabait ezagutzeko eta bereganatzeko garai haietako gizakiak egindako ahaleginetan bilatu beharko genuke. **Ortzia** edo unibertsoa ziklikoa zela jakitera iritsi ziren eta urtearen banaketa ezagutu zuten.

Hori dela eta, naturaren aldaketekin zer ikusirik zuten jai eta erritoak antolatu zituzten, horietako garrantzitsuenak solstizio, ekinozio edota ilargiaren aldiekin loturikoak.

Garai zahar ilunetan

Lehen esan bezala, aro zahar haietan urtaroen banatzaileak, hau da, solstizioak eta ekinozioak, oso kontutan hartu zituzten euren egutegian zein urtero errepikatzen zituzten jai erritualetan, horiek baitziren, nolabait, euren bizimodua bideratzen eta baldintzatzen zuten **mugarriak**. Neolito Aroan, gizakiak, bere bizimodua nekazaritza edo laborantzaren inguruan finkatu zuenez geroztik, luraren indar ezezagunak ulertzeko eta aurreikusteko zuen berezko grina hori areagotu zen. Hori dela eta, urtez urte, urtearen sasoiak edo aroak ospatu ditu: Subilaro edo Olentzaro neguko solstizioan, inotea (edo ihotea) udaberriko ekinozioan... eta nola ez, Eguzkiaren Jai handia udako solstizioan.



Kristautasunarekin aldaketak

Kristautasuna Europan zabaldu eta indartu zelarrik, jentil **usaiak** edo ohiturak eraldatu eta bereganatu zituen. Honi *sinkretismoa* deitzen zaio.

Neguko solstizioaren inguruan Gabon eta Eguberri jaiak ezarri zituen, udako solstizioaren inguruan San Joan edo Jondoni Joane eguna, eta zikloaren berritzea azaltzeko, inauterien **gibelean Garizuma** eta Aste Saindua. Errito zaharrak eraldatu eta moldatu zituen, baina errito horien atzean eraiki zuten kosmos ikuskera erabat desberdina zen. Hala ere, lurralde aintzietan, antzinako errituak gogoan mantendu zituzten.

Jondoni Joaneren inguruko sinesmenak

Jondoni Joane edo San Joan ekainaren 24an ospatzen da, udako solstiziotik (ekainaren 21ean, normalean) gertu. San Joan bezperako gauean erritual franko ospatzen ditugu Euskal Herrian. Etxeetako ate eta leihoetan lizar edo elorri-zuri adaxka ezartzen da, eguzki berriak etxe horretan bizi direnak bedeinka eta babes ditzan. Herrietako plaza nagusietan lizar edo haritz handi bat jartzen da eta herriko dantzariak dantza erritualak egiten dituzte zuhaitzaren inguruan. Askotan lizar horietatik zintzilik San Joan gereziak ipintzen dituzte.

Herri, auzo, baserri guztietan sua pizten da. Suak eguzki berria omentzen du eta gizakion bekatuak garbitzen. Zenbait herritan patatak erretzen dituzte Jondoni Joaneren gaueko suan eta gero bertara hurbildu direnen artean banatzen dituzte denek jan ditzaten. Lehen, eta duela oso gutxi arte, oroitzapen txarrak ekartzen zituzten arropak edota objektuak surtara botatzen zituzten, eguzki berriak zorte hobea ekarriko zielakoan.

- **Hiztegia**
- **Menderaezinak:** menderatzeko, dominatzeko zailak
- **Ortzia:** zerua
- **Mugarri:** frontera
- **Usai:** costumbre
- **Gibelean:** atzean
- **Garizuma:** cuaresma



Mimukai garapenerako zentroa, aurrera

Cederna Garalur garapen agentziak bultzatuta, Mimukai garapenerako eta eraldaketarako gunea martxan jartzeko lanak amaitzen ari dira azken hilabetotan. Gunearen kokalekua Leitzan egonda ere, gogoratuko dugu Basaburuko eta Imozko udalek ere parte hartzen dutela egitasmoan. Ekainaren 22an, jardunaldia izanen zen gunean, eta irekiera ofiziala datorren hilabeteetan egingen badute ere, lehen aldiz instalazioak bisitatzeko aukera izan zuten gerturatutakoek.

Ekimenean, ekintzailtza eta kooperatibismoan diharduten hainbat esperientzia ezagutzeko aukera egon zen. Esate baterako, Olatukoop-eko Beñat Irasuegik Euskal Herriko ekosistema kooperatiboaren inguruan hitz egin zuen, eta kooperatiba esperientzia desberdinak ere izan ziren bertan: Bakaikuarrok gizarte-ekimeneko kooperatiba eta Goierriko Biziola kooperatiba.

Egitarauarekin bukatzeko, Mimukai ekintzailtza ekosistemarako gunearen inguruan hitz egin zuten Cederna Garalurreko kideek, egitasmoa aurkezteko, eta instalakuntzetan bisita egin zuten jarraian.



Nafarroako Gobernuko, Udaletako eta Cederna Garalurreko ordezkariak, gune berrian ▲



Carrefour
express
Zugandik gertuago

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9'00 - 20'00
LARUNBATA ETA IGANDEA
9'00-14'00 / 16'00 -20'00



CAMPING - KANPINA
IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



◀ Patxi Ariztegi
Lizasoarrak kuadrillen
egunean egindako
bideo ederra
amezti.eusen ikusteko

Jendetza bildu zuen Ultzaman lehenengo Kuadrillen Egunak

Kuadrillen eguna ospatu zen Larraintzarren ekainaren 17an. Adin eta herri guztietako ultzamarrak bildu ziren bertan.

Herri kirol desafioak erakarri zuen jende gehien. Bai lehian -110 pertsona aritu ziren- eta baita ikusle gisa ere, Larraintzarko frontoiko harmailak lepo baitzeuden.

10:00etan hasi zen desafioa, 11 kidek osatutako 10 talde aritu ziren txapela lortzeko asmoz. Txandaka osatu zituzten lanak: Etxikarte, Txokoracing eta Xulatez taldeko kideak izan ziren lehenak; ondoren, Mostuzes, Morkotx eta Errezetak taldekoak; eta, azkenik, Eskubaloitarrak, Artozakis, Yagermaizterrak eta Mokordis.

Hauek izan ziren osatu behar izan zituzten lanak: lokotx biltzea, txingak (50 kilo esku bakoitzean gizonezkoentzat eta 25 kilokoak emakumeentzat); zakua eramatea bi itzuli (40 kilokoak mutilentzat eta 20 kilokoak nesKentzat), lasterka (sei itzuli frontoiari), trontza, ingudea eta aizkora (ondoren moztutako 24 egurrekin dorrea egin behar zuten, erortzen utzi gabe).

11:45 aldean bukatu zen desafioa eta azken momentura arte emozioa nabarmena izan zen, epaileek ordura arte gorde baitzuten talde txapeldunaren izena. Azkenean, kolore gorritz jantzitako Etxikarte taldea izan zen garaile, 18:35ean lanak egin ondoren eta nahiz eta 20 segundorekin zigortu zituzten, egur bat dorrean jarri gabe utzi zutelako. Ia minutu t'erdi atera zieten arrosaz jantzitako Errezetak taldekoei, hauek 19:56an bukatu baitzituzten lanak sailkapenean bigarren postua lortuz.

Desafioa bukatuta, festa izan zen Larraintzarren. Ekaitzak tartean izan arren, euriak ez zuen giroa zapuztu. Modestok jarri zuen musika bazkalostean, ondoren, The Pijos rockeroek; eta, bukatzeko DJ Bakok.



Sailkapena, osorik:

- 1- Etxikarte: 18'35"
- 2- Errezetak: 19'56"
- 3- Mokordis: 20'02"
- 4- Morkotx: 20'05"
- 5- Xulatez: 20'18"
- 6- Mostuzes: 20'38"
- 7- Txokoracing: 21'07"
- 8- Yagermaizterrak: 21'18"
- 9- Artozakis: 21'54"
- 10- Eskubaloitarrak 23'42"





Frontoia berritu dute Etulainen

Hori ospatzeko pesta egin zuten ekainean, hainbat ekimenekin: Laxoa erakusketa izan zen, Lizarrondo elkartearen 40. urteurrenaren omenaldia ere egin zen, herri bazkaria eta arratsaldean, DJ-a. Etulainetik esan digutenez, herritarren eta gertukoen laguntza eta parte hartzeari esker antolatu zuten pesta.





**Ander Perez Argote
Berria**

Gu (I)

2023ko ekainak 30

Iruñeko Alde Zaharretik ospitale ingurura zoaz. Bi kilometro daude toki batetik bestera, eta ezagutu ez zenuen aita santu baten izena daraman etorbidea. Etxetik atera, eta zure kalean bertan, sanferminetarako taberna bana prestatzen ikusi dituzu Ernai, GKS eta auzoko gazte mugimenduko kideak, 50 metro bata bestearengandik. Harago, banaketarako furgonetak desagertzen diren tokian bukatzen da Alde Zaharra. Takonera parkea da muga: gauean udal aterpera joango diren etxegabeek lorategia dute eguneko aterpe. Korroetan biltzen dira, arbolen gerizpean.

Etorbidean aurrera, begi parera etorri zaizu Domino's Pizza bat. Lehenbizikoan harritu zintuen, honezkero ohitua zaude arratsaldeko seietan halakoak beteta ikustera. Bezeroak nor diren ere badakizu, ez dira zu eta ni bezain txuriak. Inguruko tabernetako terrazak ere gainezka daude. Opuseko ikasleak dira, mutil gazte-gazteak ia denak, badakizu hau dela haien territoria. Errebeldia nahi bat antzematen diezu, transgresio modu bat, baina badakizu zeri egiten dioten haiek erresistentzia. Kale honetan hil zuen Diego Yllanesez Nagore Laffage, orain 15 urte. Derrigorrezkoa da efemeridea festak hurbildu ahala.

Alvarez eta Larretxea, Anueko frontenis txapelketako irabazleak

Aurreko ostegunean, ekainaren 22an, Olaguen, arratsaldeko 17:30etan, hasi zen emakumezkoen Anueko II frontenis txapelketaren finala. Ultzamaldea osatzen duten bailara ezberdinetako jokalaria hilabete luzez aritu dira bertan.

Partida gogorra, luzea eta entretenigarria jokatu zuten Tornero – Beuntza bikote beteranoak, Alvarez – Larretxea bikote gazte eta Anuetarraren aurka. Partidan hiru fase ezberdinu ahal izan ziren. Alde batetik, lehen erdira arte, Tornero eta Beuntza osatutako bikoteak aurrea hartu zion bikote Olaguetarrari, tantoak gogortuz eta esperientzia erakutsiz. Bigarren fasean, ordea, 12. Tantutik aurrera Alvarezek eta Larretxeak, sasoi betean, markagailua irauli eta puskatu egin zuten 20 - 15era iritsi arte. Hala ere, hirugarren fasean berriz ere beteranoek markagailua 22 eta 20 jarri zuten, ia berdinketa lortuz eta emozioa emanez. Baina azkeneko emaitza 25 eta 21ekoa izan zen Alvarez eta Larretxearen alde. Atzelarien bete beteko norgehiagoka izan zen, Larretxearen sasoi eta kolpea partidaren klabeetako bat izan zen, Beuntzaren teknika eta gogortasunaren aurrean.

Behin partida amaituta sari banaketa egin zen, Isabel Oiartzun zinegotziaren eskutik, bertan irabazle bakoitzak Ultzamako Bentan bi pertsonendako bazkari bat lortu zuen.

Olagueko frontoian giro polita sumatu genuen, 30 pertsona hurbildu ziren finala ikustera.



**Ultzamaldeko Kirol
Mankomunitatea**



Txapelketako finalistak, saria jaso berri, Isabel Oiartzun zinegotziarekin



“Niri asko gustatzen zait egiten dudana”

Pablo Romanek hamalau urte daramazki Erbitin, Raquel bikotekidearekin eta Ibai, 13 urteko semearekin, eta alde egiteko asmorik ez dute. Egur epaitza zatitzen lan egiten duenetik, izugarri gustura dago.

Madriletik etorri ziren Pablo Román Burillo eta bere bikotekide Raquel Martínez Izcara, baina Román Salamancakoa da eta Martínez, Burgosko herri txiki batekoa, Baños de Valdearadoskoa. Langabezian zeudela, hiriburutik Nafarroara etortzeko aukera izan zuten, eta ez zuten zalantzarik izan. Orain, damurik ere ez. Hemen jaio da bien semea, Ibai.

Nondik etorri zineten eta zergatik?

Madriilen bizi ginen eta lanik gabe geunden. Niri Emausko Trapuketariekin lan egiteko aukera suertatu zitzaidan eta bioi penintsulako iparraldea gustatzen

zaigunez - nafar ugari ezagutu nituen unibertsitatean-, semerik ez genuenez, eta, beraz, aukeratzeko askatasuna genuenez, hona etorri ginen. Urtebetez Mendillorri bizi izan ginen baina landa eremua atsegin genuen eta horrela ezagutu genuen Erbiti. Etxea alokatzeko aukera suertatu zen, gustatu zitzaigun eta etorri egin ginen! Nik bizpahiru urte eman nituen Emausen lanean, gero Ibai jaio zen, eta ondoren, lantegi batera joan nintzen. Hori bukatu zenean Basaburuko udalerako lanean ere aritu nintzen, eta, gero, epaitzarekin hasi nintzen.

Eta nola hasten da horrelako lan batetan?

Ni lan bila ari nintzen, aldi berean etxerako genituen lehenengo epaitzak moztu nituen eta gustatu zitzaidan. Gainera, Iruñera edo etxetik ez oso urrutira joatea behartuko ez zidan lan baten bila ari nintzen, Ibai txikia baitzen eta hemen aitona-amonarik ez zegoen gu laguntzeko, beraz, bietako norbait gertu egotea beharrezkoa zen. Epaitza egitea oso ongi datorkigu, izan ere, apirila eta maiatzetik, epaitza jaisten denean, azaro arte izaten da lan gehiena. Horrek aukera ematen dit etxea eta Ibai zaintzeko. Niri asko gustatzen zait egiten dudana, jendeak lan zaila dela esaten dit, eta bada, baina nik oso gustura egiten dut. Jendea pozik dagoela ikusten duzu, gainera. Emaizta berehala ikusten duzun lan horietako bat da eta horrek ere asetzen nau, eta jendearekin harreman zuzena duzu.

Zertan datza, zehazki?

Herritarrek egurra etxean duenean, enbor gisa, nik enbor horiek mozteko zerbitzua eskaintzen dut. Gehienbat adineko jendea izaten da, lehen agian seme-alabek mozten zietelako eta orain ez daudelako hemen, adibidez. Edo denborarik ez duen jendea, edo bakarrik bizi den norbait eta mozten ez dakiena... Ni motozerrekin eta egur zatitzailearekin gerturatzen naiz behar den tokira. Aurretik egurra saltzen hasi nintzen, baina bezeroak lortzea zaila zen, hemen ez dago jende nahikorik eta, gainera, gehienak epaitza du.

Jendeak ohitura du oraindik loteak eskatu eta egiteko, ezta?

Bai, ongi errotuta dagoen ohitura da, eta guri asko gustatzen zaigu. Honera etorri baino lehen ez nuen aukerarik izan sukalde ekonomikoa izateko edo etxea egurrarekin berotzeko. Niri asko gustatzen zait hori, hemen inguruan ikusten den zerbait da eta hori asko gustatzen zaigu.

Mozten ikasi behar izango zenuen, ez al da horrela?

Hasieran ez nekien, ez, motozerrarekin ez aizkorarekin ez nuen inoiz erabili. Auzokide batek erakutsi zidan. Aizkora egur zatitzailearekin aldatu nuen ondoren, azkarrago lan egiteko.



▲ Pablo Roman Burillo

Pablo Roman:

635 90 91 95



Hogeita bi urtez ostalari

Pello Etxeberria Agirre, Iruñeko semea Lantzen ostalari

Iruindar peto-petoa, baina aita Baztangoa zuen, Elbetekoa, Pello, eta ama, berriz, Ultzamakoa, Eltzaburukoa, Inaxi Agirre. Hau oraindik bizi du. Lantzen urte luzez ostalari izan ondoren, beste bide bat hartu beharra gertatu zaio eta ostatua utzi beharra. Hori dela eta, omenaldi ttiki bat egin dio herriak. Ttikia? Bere ustez lantzarrak puska handiz pasatu dira.

Hau guzia dela eta, Iruña kafetegian elkarrizketatu dugu Pello.

Non ikasi huen euskaraz?

Etxean, gurasoekin. Gero ikastolan.

Orain 60 urte sortua, Iruñeko lehen ikastola estreinatua zuen, San Jose Plazan, Katedralaren ondoan izan zena bizpahiru urtez, tokiz aldatu artio.

Eta Lehen Hezkuntza bukatu ikastolan eta ondoren?

Ondoren Elizondon, tornulari eta fresatzaile ikasketak egin nituen.

Bukatu eta lanera.

Ez, ez, Kordobara, soldaduska egitera. Handik itzuli ondoren lanera, bi enpresatan, ikasitako lanetan hiru urtez.

Eta lan berri batera salto.

Bai, hala izan zen, SEURa, garraio enpresara, eta bertan 16 urte egin nituen. Lehenik Erribera aldera, kamioiarekin, egunero 400 kilometro eginez, eta ondoren ofizinetan enkargatu; 30 lagun izan nituen nire kargu. Goizean goiz hasi eta ilundu artio lanean, buruhauste frankorekin, nazkatu artio. Eta uztea erabaki nuen.

Eta nola izan huen Lantza etortzea? Ahaideren bat edo ba al huen hemen?

Ahaidetik? Ez, ez. Ia-ia ezagutu ere ez nuen egiten Lantz. Adiskide bat banuen Gaskuen eta astero bertan biltzen ginen musean aritzeko eta afaltzeko lagunartean. Eta han ezagutu nuen **Goltxipo**, Jesus Narrica, Lantzko **Goltxipenekoa**. Eta erdi brometan hasi ginen hizketan, ostalaririk gabe zeudela eta horrela. Erdi brometan, hau eta beste, ostatu ona zela.....eta berotu eta: *Zergatik ez egin proba?*

Eta Lantza, ostatu kontu hori nola zen ikastera.

Bai, alkatearengana hizketatzera joan eta animatu ginen. Ni eta Julio Cuadrado sartu ginen. Domingo Saratsibar, **Urđinenekoa**, zen alkate, eta honek ere oso ongi hartu gintuen. Ondoren ere, gu laguntzeko beti prest azaldu zen. Domingo oso ongi portatu zen. Eta jendea ere bai. Jendea oso jatorra da Lantzen. Eta horrela egin ditut 22 urte.

Noiz etorri zineten?

Bi mila eta batean. Ihoteak pasa ondoren etorri ginen. Hogeita bi urte oso-osoak egin ditut. Lehen bost urteak Juliorekin egin nituen. Eta hurrengo sozioarekin, Kike Zamarbiderekin, 10 urte. Azkeneko zazpi urteak bakarrik egin ditut.

Lantz, herri ttikia. Iruñetik aldaketa ederra.





Bai, lehenbiziko nabaritzen duzuna isiltasuna da, lotara joan eta "entzuten" den isiltasuna.

Herritarrek "normalak", bakoitza bere lanera, behiekin, ardiekin... Hemengo jendea lagunkoia eta prestua da. Benetakoak dira.

Errentarik ordaintzen zenuten?

Bai, bai, lehenbiziko hiru hilabeteen ez, proba egiteko, eta laugarren hilabetetik aitzina errenta jarri ziguten.

Ordutegirik jarri zizuten?

Bai, hasieran egun osoa, gero, ikusirik goizez ez genuela inor izaten, herriarekin ados jarri eta ordutegi berria jarri genuen. Nolanahi gisa, bertan bizi ginenez, behar zen guzietan prest izaten ginen jendeari harrera egiteko.

Herriko ostatuak gehienetan izaten dute lur muturren bat, baratzaren bat. Bazuen Lanzkoak ere?

Bai, baratza izan dugu beti, eta ederra gainera. Betetzen lana! Dena

dela, herritarren bat beti laguntzeko izaten genuen. Hala ere, azken urteetan, bakarrik gelditzean, ez dut baratzik landu izan.

Pello, orain ostatua nola zegok, hobeki edo okerrago?

Hobeki, hobeki, dena obratua dago orain, lanerako errazago eta oso poliki jarria dago. Goitian badu jangela eta sukaldea. Baina normalean, beheitiko sukaldea eta jangela ibiltzen dira. Bai goitiko instalazioak eta bai beheitikoak, gu joan ondoren atonduak izan ziren. 2008an edo 2009an egin ziren berritze lan hauek guziak.

Galdetu ere galdetu diot ostatuko anekdotaren bat kontatzeko eta hara zerekin atera zaidan:

Sartu ginenean hala esan ziguten udalekoek: "ostatuan gertatzen den guzia, ostatuan bertan gelditu behar du" Eta horrela beharko du orain ere.

Eta besterik gabe, gu kontent, Lanzko ostatuaz ikasi dugu aski eta. Eta Pelloz ere bai, pitta bat.

IHOTEAK

Xarma handiko herria da Lantz. Eta nahiz ttikia izan, gure alderdirako handia da. Herri interesgarria, historia handikoa, baina zerbaitengatik entzuna baldin bada, bere ihoteengatik da ezaguna.

Eta ihoteetan zer moduz?

Ihoteetarako prestatu behar eta aurreko maistarra, Angel Cabañas, etorri zitzaigun zer behar genuen, zenbat kamarero, nola prestatu behar genuen etxea... dena azaltzera. Eta horrela ekin genion gure lehen ihoteei.

Ihoteetan kamarero gehiago beharko zenuten.

Bai, bai. Azkeneko ihoteetan 15 lagun kontratatu beharra izan nuen. Jakina, txandak egin behar izaten dira, badakizu, hori hasten da goizeko hamarretan eta hurrengo eguneko zazpitan bukatzen da. Horrela hiru egunez. Batzuk goizez. Bazkal ondoren beste batzuk eta afal ondoren gainerakoak.



▲ Ekainaren 3an bazkari-omenaldi bat egin zioten Lantzen. Hemen mahaiburuan, oroigarri bat oparitu zioten momentuan.



Jon Altsua eta Javier Auza, trontza txapelkunak Basaburuko egunean



San Joan gaua Erripan



Lanzko euskararen eguna. Talde argazkia



Lanzko euskararen eguna. Kalejiran



Lantz. Frontenis txapelketa. Lantzen indarririk ez da falta.



Ostizko pestak



Aizarozko pestak, frontenis txapelketa



Motozerra ikastaro ez mistoa egin zuten Muskitzen



Elene, Markel, Urko, Iker eta Nahia Auzan



Basaburuko eguna, mus txapelketako irabazleak, Udabeakoak eta Beramendikoak

Bertako behi arrazaren lehiaketetan sari ugari datoz urtero eskualdera

Ganadu feriak ohikoak izaten dira Nafarroan eta Euskal Herrian, eta horietako askotan, azokaz gain bertako abere arrazen lehiaketak ere egiten dituzte. Arraza horiek eta horiekin lan egiten duten abeltzainak balorean jartzeko bide izaten dira lehiaketa horiek. Gure eskualdean, pirenaika arrazako behi hazleek sari mordoxka jaso dituzte azken urteotan.

Izenak erreferentzia egiten dion bezala, Pirinio inguruko bailaretan jatorria duen behia da pirenaika arraza. Euskaraz, abelgorri ere esaten zaio, animalia ren kolore gorrixkari erreferentzia eginez. Ultzama aldeko larreetan ikusi ohi dira arraza honetako behiak, nahiz eta ohikoagoak diren esnetako behiak eta haragitarako erabiltzen diren beste zenbait arraza, mestizoak kasu.

Ganadu feriak eta lehiaketak

Han-hemen maiz ospatzen diren ganadu ferietan, animaliarik ederrenak saritzeko lehiaketak ere egiten dira. Behi pirenaikoaren kasuan, irailean Elizondon eta

urrian Gernikan ospatzen diren feriak eta lehiaketak izaten dira hitzordu garrantzitsuenetako bi. Lehiaketa horietan parte hartzen urteak daramatza Olagueko (Anue) Jesus Ostiz abeltzainak. Azken urteetan, gainera, semearen laguntza ere izaten ari da. "Nik hogeita hamar bat urte nituenean ekarri nituen lehendabizikoz behi pirenaikoak hona, sei hilabeteko sei txekor", gogoratu du. Behiez gain, behorrek, ardiak eta ahuntzak ere badituzte etxean.

Haragitarako erabiltzen dituzte behiak, eta urtearen zati handi batean kanpoan izaten dituztela kontatu du abeltzainak. "Neguan, eguraldi

txarrarekin, ukulura sartzen ditugu denbora batez, baina geroz eta gutxiago. Azken urteetako neguak hain arinak izan dira, gainera...", dio.

Txapelketei dagokionez, hamabost bat urte daramatza horietan parte hartzen Ostizek. "Horrelakoetan parte-hartzea gustuko dut, azkenean, hemendik ateratzen gara, eguna ederki pasatzen dugu, jendea eta abeltzainak ezagutzen dituzu, afaltzen ematen digute..."

Behien edertasun kanonak

Erreportajearen puntu honetarako, batek baino gehiagok galdetuko zion bere buruari: "Eta zer baloratzen da horrelako lehiaketetan behirik ederrenak izendatzeko?". Bada, arren eta emeen artean sail desberdinak daude, eta gauza bera behien hilabete kopuruaren arabera. Behin sailetan banatuta, ondoko elementuak kontuan izaten dituztela dio abeltzainak: "Buruaren forma begiratzen diete, buru txikia izatea; bizkarraldea; ipurgaina, emeen kasuan, erditzeak errazak izateko; haragia bai baina hezur gehiegirik ez izatea; adarren forma eta kolorea, punta zorrotz izatea; apatxak garbi izatea; errapeak garbi eta ez oso handiak izatea...". Luzea da zerrenda. Azken urteetan, gainera, behiak desfilatzen ere jartzen dituzte, ibilkera ere baloratzen dutelako.



Urte asko daramatza Olagueko Jesus Ostizek behi pirenaikekin lanean



Lehieketetarako behiak nola prestatzen dituen galdetuta, Ostizek dio ezer berezirik ez duela egiten, urte osoan animaliei kalitatezko bizitza ematea izaten dela bere modua. "Onena litzateke horrelaxe eramatea behiak, zelaitik zuzenean, pentsurik ez ezer eman gabe. Batzuk pasatu egiten dira. Gernikan, adibidez, behiren bat kanpoan utzi zuten gehiegi loditua zutelako".

Podiumak, eskualdeko abeltzainez beteak

2022ko Elizondoko eta Gernikako ferietako lehiaketak kontuan izanda, sari ugari ekarri zituzten eskualdera bertako abeltzainek.

Elizondokoaren kasuan, 200 bat animaliak hartu zuten parte lehiaketan, eta Jesus eta bere seme

losu Ostizez gain, Zenozko Peio Etxeberriak eta Arraitz-Orkingo Gregorio Iraolak ere ekarri zituzten sail desberdinetako hainbat sari Ultzama aldera. Guztira, 16 sari. Ez da kopuru makala! Ondoko koadroetan eskualdeko parte-hartzaileek izandako emaitzak.

ASPINA, arraza babesteko Nafarroako elkarte

Arrazaren kontserbazioa eta zabaltzea bultzatzeko lana elkarte desberdinek egiten dut herrialde bakoitzean. Nafarroaren kasuan, ASPINA da behi alpinoa babesteko eta honen hobekuntza genetikoa bultzatzeko elkarte.



▲ Kanpoan izaten ditu urtearen zati handiñean behiak

2022ko Elizondoko lehiaketa

1. saila: 8-12 hilabeteko urrixak (emeak)

Zenozko Peio Etxeberriak 2. saria eta Arraitz-Orkingo Gregorio Iraolak 3.a

2. saila: 12-18 hilabeteko urrixak

Olagueko losu Ostizek 2. saria

3. saila: 18-24 hilabeteko urrixak

Peio Etxeberriak 3. saria

4. saila: 2-3 urteko urrixak

Peio Etxeberriak 1. saria

5. saila: 3-4 urteko behi umatuak

Peio Etxeberriak 2. saria eta "ekoizle onenaren" saria

6. saila: 4-6 urteko behi umatuak

losu Ostizek 3. saria

7. saila: 6-8 urteko behi umatuak

Peio Etxeberriak 2. saria

8. saila: 8-12 urteko behi umatuak

Peio Etxeberriak 2. saria

9. saila: 12 urtetik gorako behi umatuak

Peio Etxeberriak 3. saria

10. saila: 12 hilabete arteko arrak

Peio Etxeberriak 1. saria

12. saila: 2-4 urteko arrak

Peio Etxeberriak 1. saria eta Gregorio Iraolak 3.a

2022ko Gernikako lehiaketa

4. saila: 18-21 hilabeteko urrixak

losu Ostizek 1. saria

11. saila: 6 urte eta 8 hilabeteetik 8 urte arteko behi umatuak

losu Ostizek 3. saria



Kepa Mateorena

“Beti pentsatu dut irakasle ona izatea izugarri zaila dela, eta asko dago jokoan, pertsonekin ari baikara lanean”

Bertako herritar askok bezain ongi ezagutuko du honezkero Kepa Mateorena irakasleak Basaburua. Edo, behintzat, bertako haur, gazte eta ez hain gazteak. Izan ere, azken 17 urteak eman ditu Jauntsarasko Oihanzabal eskolan lanean, horietako asko zuzendari. Aurtengo ikasturtearen bukaerarekin batera amaitu da Oihanzabalgo bere ibilbidea, ordea. Aitortu digu penaz utziko duela eskualdea, baina, aldi berean, eskolari eta berari ere aldaketak on egingo diola uste du.

Noiz hasi zinen Jauntsarasko Oihanzabal eskolan lanean, eta nola gogoratzen duzu hasiera hura?

2006an hasi nintzen, eta ilusio handiarekin gogoratzen dut hasiera. Kuriosoa da, iritsi nintzenean gaurko ikasle kopuruaren oso antzekoa baitzuen eskolak, 38 bat ikasle izanen ziren. Banuen hemen irakasleren bat ezaguna nuena, eta eskola oso polita iruditu zitzaidan, lehenbiziko urteko oroitzapen oso ona dut. Gogoratzen dut lau maila batera zirela: hirugarren, laugarren, bosgarren eta seigarren mailako taldeak, denak nahasiak zeuden.

Oso ongi pasatu genuen eta niretzat esperientzia oso aberasgarria izan zen.

Aurretik lan egin zenuen eskolekin alderatuta, oso desberdina al zen Oihanzabal?

Bai, bai. Ni aurretik Irurtzunen, Leitzan, Zizurren eta Noainen aritua nintzen. Denak eskola askoz handiagoak ziren, eta problematika erabat desberdinekoak. Hau eskola txikia zen, irakasle taldea ere bai, baina aldi berean oso dinamikoa. Proiektuak sortu nahian aritu ginen, saltsa askotan sartu ginen –agian gehiegitan– eskola transformatu

nahian. Gauza batzuk egin ziren, baina egia da beste batzuk zintzilik gelditu zirela. Gaurtik begiratuta, agian errealismo pittin bat falta zitzaigun? Azkenean, gauzak eraldatu nahi dituzunean, hasten bazara bat-batean erabateko aldaketekin, itozteko arriskua ere badago. Baina bai, saiakerak egin genituen, metodologia desberdinak aztertzen aritu ginen eskola desberdinetan... eskola honetako arazo handi bat izan da urtetik urtera aldaketa handiak egon direla irakaslerian eta ekipoa askotan berriro dela, eta horrela zaila da proiektu bat finkatzea.

Urte guzti hauetan bailarak bizi izan dituen aldaketen lekuko izan zara, nolabait. Zu iritsi zinenetik Basaburua ingurua asko aldatu dela esanen zenuke?

Bailara bera eta gizartea orokorrean asko aldatu dira, bai. Familia, heziketa estiloak... dena aldatu da! Iritsi nintzenean eskola txikia zen hau, baina orduan hasi ziren pixkanaka Aizaroztik ikasle geroz eta gehiago etortzen. Izan ere, Aizarozkoa fenomeno garrantzitsua izan zen bailaran, apustu handia egin zuten, eta nik uste dut emaitzak eman zituela: etorri zen jende asko hurrengo urteetan hona bizitzera, eta jende oso dinamikoa zen gainera, gogoz etorri zirela uste dut. Hori eskolan ere nabaritu zen.



▲ Eskolako urte hauetako oroitzapen eder ugari dituela dio irakasleak



Baina, aldi berean, ikasleen eta familien tipologia eta soziologia ere asko aldatu ziren. Etorritako jende asko hiritarra zen, eta hori eskolan ere nabaritu zen, umeak hezteko moduagatik, baloreengatik, etab. Eskola barnean egokitzeko eta aldaketak egiteko beharra ekarri zuen, eta polita izan zen, baina talkak ere sortu zituen.

Irakaskuntza bera ere aldatu izan da geroztik, ezta? Nola ikusten duzu gaur egun irakaskuntza?

Askok aldatu da. Hasteko, hezkuntza legeak aldatu dira, nik ez dakit zenbat lege ezagutu ditudan urte hauetan! Bestetik, digitalizazioak ere aldaketa ikaragarria ekarri du, eta iruditzen zait eskolak asko ari direla burokratizatzen. Gaur egun, irakasleok denbora asko pasatzen dugu ordenagailu aurrean, informea betetzen, dokumentuak sortzen... izugarria da. Eskakizunak eta hobekuntza planak ere etengabekoak dira, lan karga asko handitu du horrek guztiak, baina bitartekoak lehengo berak dira. Ordu kopuru berak.

Eta edukietan eta gauzak lantzeko moduan?

Bai, zorionez, garrantzia handiagoa ematen zaio gaur egun ikasleen aniztasunari, baina beti ez da erraza horri erantzutea, irakasleak oso prestatua egon beharra du hor sortzen diren behar guztiei erantzuteko. Garai batean erritmo bat markatzen zen, testu liburu batekin adibidez, eta ailegaten ez zirenak ziren errekuperatu beharra zutenak edo suspenditzen zutenak. Orain, beste exijentzia batzuk daude, eta gure prestakuntzak batzuetan huts egiten du horretan, ez delako erraza. Beti pentsatu dut irakasle ona izatea izugarri zaila dela, eta pertsonekin ari zara. Badakigu eskolako urteek zein eragin duten gerora ere, ez titulazioari begira bakarrik, autoestimuari begira

ere bai. Eskola izan daiteke bide aberasgarri, polit eta bizigarria, edo ikaslearentzat frustrazio ikaragarria. Jokoan asko dago.

Administrazioak landa eremuko eskoletako beharrak kontuan izaten al ditu?

Ez, inolaz ere ez. Landa eremua orokorrean oso utzia dago alor guztietan, bada, eskolak ere berdin. Eskola txikien errealitatea ez dago batere zaindua. Ikasle gutxi ditugu, eta administrazioak askotan planteamendu horrekin jokatu du. Hemen 40 ikasle ditugu, 'zer da ba hori?', pentsatzen dute. Eskola handi batean gela eta erdi! Administrazioak bere legetan irakasleoi eskatzen digu aniztasunari erantzun behar diogula, errealitate desberdinei... baina bera ez da gai eskolen aniztasunari erantzuteko. Kontuan izan behar lukete eskola desberdinak daudela, problematika eta behar desberdinekin.

Haur eta gaztetxoaren artean euskararen erabilera faltak jende asko kezkatzen du azken urteotan. Nola bizi izan duzu gai hau eskolan?

Askok nabaritu dut nik hori, etorri nintzenean eskola izugarri euskalduna zen hau euskararen erabilerrari begira: ikasleek hitz egiten zuten patioan, jantokian... Orain, berriz, ikasle gutxi batzuk kenduta, asko hitz egiten dute gazteleraz, eta gainera modu naturalean ateratzen zaie. Ikasle asko errazago komunikatzen dira gazteleraz, eta erabat euskaldunak diren txikiak ere, 3-4 urtekoak, hona iristean erdaraz ez dakitenak, sartu eta urtebetera erdaraz ari dira askotan. Hemen ere aritu gara gu horretan eragin nahian eta erabilera sustatu nahian, baina oso oso zaila dago kontua. Eta, eskolak badu eragiteko aukera, bai, baina kanpoko giro orokorrak ere asko esan nahi du. Giro orokorrean gaztelania

“
Eskola txikia baina oso dinamikoa zen Oihanzabal bertara iritsi nintzenean
”



▲ 2006an iritsi zen Oihanzabal eskolara Kepa Mateorena

nagusitzen bada, haurren arteko inertziekin ere horretara jotzen dute.

Urteotako oroitzapen berezirik baduzu?

Uf... asko ditut! Gogoan dut, adibidez, etorri eta gutxira 9 ikaslerekin astebete Bartzelonara joan ginela, familia baten aitonak han zuen pisu batera. Han ibili ginen batetik bestera, oso gustura. Batzuk erosketetez arduratu ziren, beste bat metroan mugitzeko planak egiteaz arduratzen zen... oso esperientzia polita izan zen! Baina, tira, bizipen eder asko egon dira. Oso gogoan ditut klasean sartu aurreko momentuak ere, umeekin jostaketan, edo sortzen diren besarkadak...



Miguel Goñi Olias,

Basaburuko azken arotza (eta II)

Hamalau urtetan arotz

Hamaika urtetan 14 ikazkinekin lanean hasi zena hamalauetan arotz ikastera joan behar izan zuen. Eta langintza horretan urte asko emanen zituen, 41 urteak artio bere ofizio "bakarra" izan zela esan dezakegu. 41 urtetatik aurrera fabrikari hasi eta bietan aritu zen lanean.

Migel, arotz ikasten aittu omen yitzen.

Nik hamalau urte nittulaik, hemen ibiltzen yun Miel, lokitako **Otxokonekoa**, eta honek eun batian, ea Ostitza yoa nái nun bertako aotzangana, launtziá. Ta gue ama zenai ia uzten zen nei Ostitza yoatia ta yoa giñuzken Ostitza ta lau urtes yondu nuken.

Eta nola ez hitzen hemen, Gartzaunen geldittu? Atte aotza yun, ez?

Atte ordueko ikaarri gaizki zailleken, biotzetik eta. E'yun gauze ia. Gu atte zenak hartu zin karteroskoa. Gio karteroskoan'e Beutia ezin ianes ibiltzen yun eta ni etorri nitzelaik, eosi nin moto koxkor bat, ta denbo txarrekin eitten giñin guk karteroskoa. Teodorok, anaiek, zittin 16 urte ta horrek itten zin eta Maria Jesusek'e bai. Moto vespa zin.

Eta Ostizko aotza nor zen?

Ostizko aotza? Miguel Latasa, Ostitzen yaioa biño aita zin Suarbeko **Bixkarrekoa**. Bi anai aotz yittun, bat Ostitzen eta bestea Lizason.

Aroztegia Ostitzen. Zer lan zuen arotzak?

Perratzen asko!! Idik bayittun itxe guzitan, eta bagiñizin Olaguetik hasi ta: Etulain, Burutain, Etsain, Zandio, Otsakain, Enderitz, Olaitz, Ziaurritz, Anotzibar, Anotz eta Erripa. Latasara Markalaingoa etortzen yun eta Ultzamaldiá Lixka, Lizasokoa, eta Aizpurua Auzekoa. E' yun besteik.

Eta ondoren?

Hemen (Gartzaron) nioken, eta Lixka hasi zelaik ollaskoakin eta, ni asko ai nioken perratzen eta, etorri yun honia:

-Nahi baduk, utziko dit nee parroki guzie. Kartxak 2.000 pzta eta dena hiretako.



▲ Domingo, Migelen aita, ehiza zakurrez inguratua.



Eta ni hasi nioken Lantzen, Arraitzen eta Alkotzen.

Eta gio arkiak ein zittiten lhabenen, Udaben, Itsason. Eta Beutekoak'e (aziendak) nik itten nittin.

(Arrarasko arotza Teodoro Goñi zen, Miguelen lehengusua. Eta Igoakoak Auzako arotza ekarrarazten zuten)

*Hogeita hamaika urtetan ezkondu zen Imozko Latasako **Matxikeneko Dorita Sararatsola Arregirekin.** Hiru mutiko eta neskato bat izan zituzten.*

Eta fabriken noiz sartu hitzen?

Berrogeita bat urtetan. Orduko bagiñizin lau ume. Hankako miñe berritu zaieken eta hanka moztekotan ibili yun Araitz medikue. Azkenian libratu nioken. Eta Dorita e'yun ixiltzen, hobe nula eta hobe nula fabriken sartzia,

eta hola sartu nuken fabriken, lurtzungo INASAn.

Aziendetako afizioa're izandu duk ba!

Aziendetako afizio ikiarrie, beieta. Ganaderoakin ibiltzen ba'yaiz, kutsetu bezala itta'auk. Eta mozkorrakin ibiltzen ba'yaiz, igual e!

Eta esnetako beiek jarri ittun.

Bai, leendixko, ergitxek hazi ta umi'tteko jartzen zelaik saldu itten nittin. **Albeingo** borda errentan hartu edo Etxarrin lurrek hartu eta hazten nittin. 20 eta 28 mila pzta artian saltzen nittin. Gio hasi nioken esnetako beiekin.

Ergitxek hazi, ondoren esnetako behiak. Aroztegia, fabrika, azienda... denetarako beta hartzen zuen Migelek. Eta Dorita ere, zer esanik ez, fierra zen lanean. Nola eta

zergatik jarri zituen behiak galdetu diogunean hara zer esan digun.

Ukullu berrik hasi yittun ordun. Eta nik beitegi pilotua bezala jarri nin. Kamañek jarri gabe, parrillekin, denak batian lotzeko katxarroakin eta ure eateko tresnakin.

Ordun hasi nioken hoiek denak han eta hemen jartzen.

Gio Iruñeko Beroiz zenakin ere esne jeixteko makina asko jarri nin. Eta fontaneroskoan ere aitzen nuken.

Beste negozio franko ere ibili izan ditu Migelek:

-Behien tuberkulosia zela eta hemen izugarritzko aziendaketa kendu behar izan zen eta orduan zerramak jarri zituen, kioletan. Urte askoz aritu zen zerrikume hazten. Eta horrela, jendeak ikusten zuen eta kaiola franko saldu zuen.

-Ondoren ollaskoak ere urte purrusta batez hazi zituen, Uharteko Mina hiltegiarentzat. Eta pentsu saltzen ere ibili zen zerbait.

-Eta ez dezagun ahantz, bentan, bere aitak, astarra, zaldia eta aketza izan zituela. Ba, gerora ere, aketza urte luzez izan zuten bentan, zerramak, handik eta hemendik, kamioneta batez etxera ekarriz estaltzeko.

Bentan lana izan da eta lan latz egin dute senar-emaztek eta umeek.

Eta jubilatuta ondoren ere, osasuna lagun, ez dio lanari utzi. Behorrekin, bere seme kisuskilari, Migeli, laguntzen... ez da geldirik egon izan den gizona. Baina kontu hauek guziak behar bezala azaltzeko Pulunpe osoa beharko genuke eta besarkada bat emanez hurrengo arte esan behar izan diogu, gaztetan pilotari onskoa, eta fabrikan hasi ondoren 20 urtez Balleko jueza izan denari. Ea nork ezagutzen duen hau bezainbat saiatu den inor!!!



Txurdan



▲ Gartzarongo benta, aurpegia garbitu eta harria agerian utzi ondoren.



Dantzatokia Bentan

Gartzarongo bentan ostatua beti izaten zen. Baina, ia inor ez da oroituko, dantzatokia ere izan zela.

Dantza're jarri yun ba.

Bai, 200 metroko estalpia in'nin eta dantza jarri nin. Lau negus, negun bakarrik (lau urtez)

Animadorak ere jarri ittun.

Hemen kordiona yotzen zuna yun Eskako Salvatierrakoa. Eta harrek animatu eta yoan giñozken Zaragozara kantariak kontratatzia. Segun nolako neska zen, soldata're hala ziten. Biño ez yittun bakarrik etortzen e! Obligazioa ziten attekin, amakin edo anai batekin etortzeko.

Eta ni tren estaziora haien bille yoan biar izaten nin eta dantza akatu ondoan eaman. **Informacion y Turismok** e'zin permisoik ematen gañakoan!


Nolako arrakasta izan yun?

Txarrá! Neska haik ikusi zittutelaik hemengo neskak mutur ona jarri ziten! Gaizki hartu ziten. Ekarri izan bagiñu gizona, neskak hemen izain giñizin, denak. Eta neska dagon lekun mutille etortzen baita... Neska izatiakin, hasi yittun gio ta gutxiau eta gutxiau etortzen, eta Lizason dantza tokie iikitzian, geldittu giñozken deusezian.

Nola yittun diru kontuk?

Hiru mille pezta paatzen nin kantarie. Eta hiru soñu yotzaliatza, beis, 700 pzta, denenendako. Hok arront merkiak yittun. Bi urtes kantarik gabe, hiruarrenian neskakin eta lauarrenian gabe. Sarrera 40 pzta. mutillei eta 10 pzta neskatxei. Kontuk erraxak yittun.

Hau dena 70eko hamarkadaren hasieran izan zen.



▲ Migel, gizon gordina dago. Urtez azkoz, Migel!

Hiztegia

Arotza: herrero.

Ikazkina: ikatza egiten duen mendi mutila.

Langintza: lana.

Ian: igan.

Perratu: herrar.

Kartxak: Ekar itzak.

Arkia: azienda perratzeko tramankulua.

Itta'auk. Iten duk. Egiten duk.

Ergitxa: novilla.

Fierra: Zuzena eta saiatua.

Ukullua: cuadra.

Aketza: zerri harra, zerri emeak estaltzeko ibiltzen dena.

Kisuskila: alabañil.



tienes!!!

Euskaradak eta erdarakadak.

Kopeta behar da gero! norbaitez esaten badugu, badakigu lotsagabe batez ari garela. Lotsagabe eta ausart batez! Esateko edo egiteko lotsa errestorik ere ez duen batez. Halako **kopeta gaiztoak** ezagutu izan ditugu.

Aspaldian ohartu nintzen, guk "kopeta behar da gero!" esaten dugun hori beste modu batez esaten zutela Gipuzkoa aldean: "aurpegia behar da gero!" Eta erdarakada iruditu izan zait beti. Erdaraz "que frente tienes" tamaina berekoa.

Ustezko erdarakada hori gogoan, lehengoan haurtzaroko eta gaztaroko zenbait hitz eta esaldi moldez, honako kontuak atera zitzaizkidan:

Etxalekun **Fiesta Vasca** 1959. urtean izan zenean, aurkezle lanetan aritu zen Don Manuel Lasarte, Berueteko apezpe eta Larraungo Etxarriko semea.

Gizona oholta gaineretik lasai eta trebe aritu omen zen, txiste batzuk kontatuz eta. Eta Oskozko apezpe zen

Don Manuel Recalde beteluarrak, honako hau komentatu omen zuen: **kopetako azala ongi egina du bai horrek!**

Eta honek guziak eraman nau hiztegiari behako bat ematera eta hor dut ikusi zer dioen azaltzen ari garen kontzeptuaz. Eta bestetik, azaltzen du **batez ere Iparraldekoa** dela. Iparraldekoa batez ere? Ez dakit ba, gurea ere bada eta gu mugatik 80 kilometrora gaude. Ekialdera Esteribar, Erro eta horietan ere berdintsu izan da. Eta zer esan Iruñea aldera joko bagenu? Agian orain 200 urte Artaxonaraino iritsiko zen.

Eta gero hor ditugu beste hauek ere, hiztegian datozenak eta gurean ere ibiltzen direnak:

Kopeta beltza: haserrea edo tristura (Hala dio hiztegiak, eta guk ere bide bertsutik)

Kopeta gora: *Kopeta gora dik horrek!* Esan beharrik ere ba ote dut harroez ari naizela?

Kopetilun: haserre edo triste garenean, kopetiluntzen gara.

Eta beste hauek, hiztegian ez datozenak:

Kopeta handia: kopeta duena, eta temazua ere bai.

Kopeta gaiztoa: Azalpenik eman beharrik ere ez dut.

Kopeta latza: kopeta izatea gauza bat da, baina kopeta latza izatera oso gutxi iristen da. Esanahi berberarekin dugu honako hau: **Kopeta oneko gizona!** (Gaiztokoa, alegia)

Kopeta zimurtu edo kizkurtu. Harridura erakutsi.

Hiztegiak bestetik dio, "Kopeta" eta "**aurpegia**" baliokideak direla. Aurpegia, dirudienez, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko era da. Niretzat "Aurpegia da emakume horrek duena" erdarakada zen. Eta orain ere, ez dakit ba, asko-asko konbentzitu naizenik. Nahiago gurea!

Gaurkoan muztioa edan beharko dut.

 **Txurdan**



▲ 1959/05/17ko Euskal festa Etxalekun. Ezagunak zaizkigu franko, baina saria hartzera igan eta atzekaldez dagoen nexkato trentza eder dun hori, adlibidez, nor da?

Hiztegia

Erdarakada: erdaraz mintzerakoan euskarazko egitura sartu. Euskarakada, berriz, alderantziz

Fiesta Vasca. Euskal festak egin ziren tenore horretan Nafarroako herritan eta horrela esten genuen: Fiesta Vasca da Auzan, Etxalekun edo ez dakit non.

Muztioa: mosto

Oholtza: tarima, tablado.

Behakoa: Begirada



Izotz

irristaketa

Iera Garbisu Larrea muskiztarra, irristaketan eta izotz balletean goi mailan

7 bat urte zituela hasi zen Iera Garbisu Larrea muskiztarra izotz irristaketan. Erdi kasualitatez iritsi zen kirol horretara, amak lagunduta, baina segituan gustua hartu eta horretan jarraitzen du gaur, zortzi urte beranduago. Bakarkako irristaketan, bigarren postua lortu zuen iaz sailkapen orokorrean. Baina indibidualean ez ezik, izotz balletean ere ari da azken urteotan gaztea, eta maiatzean, Espainiako txapelketa irabazi zuen Uharteko bere Omnia Team taldearekin.

Noiz hasi zinen izotz irristaketarekin?

Zazpi edo zortzi urte nituela hasi nintzen izotz irristaketan. Erdi kasualitatez probatu nuen, gustatu egin zitzaidan eta ikastaro batean eman nuen izena. Maila desberdinak daude izotz irristaketan: hastapeneko dago lehenik, eta hor zirkuituak, jokoak eta horrelakoak egiten dira, eta gero irristaketa artistikoa edo hockeya aukeratu dezakezu. Urtebete egin nuen nik hastapenean, eta 9 urterekin pasatu nintzen artistikora. Maila aurreratuan ikasturte erdia egin eta gero, lehiatzen hasi nintzen. Lehiaketetan ere maila desberdinak daude: eskolarra, erregionala, autonomikoa eta nazionala. Batetik bestera pasatzeko testak egin behar izaten dira, azterketa modukoak.

Eta izotz balletean, nolatan hasi zinen?

Duela bi urte hasi nintzen. Nahiz eta modalitate nahiko berria den, Uhartan aspalditik egiten da izotz balleta, eta beste patinatzaileak oso gustura ikusten genituen. Azkenean, taldean ari zara, lehiatzera beste kideekin zoaz... Talde zaharragoak utzi egin behar

zuen, eta orduan, nire adineko guztiek pentsatu genuen horretan hasia. Sub15 taldea atera genuen, 15 urtetik beherakoentzako. Hala ere, taldean %20 izan daiteke adin horretatik gorakoa.

“ **Bakarka, asteen zazpi bat ordu entrenatzen ditugu** ”



Lleidako Vielha herrian suertatu zen Espainiako txapelkun Garbisuren Omnia Team taldeaz ▲



Nola definituko zenuke izotz balleta? Zer da zehazki?

Irristaketa sinkronizatuarekin nahastu daiteke izotz balleta, baina baditu desberdintasunak. Izan ere, sinkronizatuan ez dira piruetak, saltoak eta horrelakoak egiten, eta izotz balletean bai. Hala ere, gurean baloratzen dena da istorio bat kontatzea eta hori ongi ulertua izatea, balletean bezala. Nolabait, dantzaren eta irristaketaren arteko zerbait da. Indibidualean hiru elementu nagusi daude: saltoak, piruetak eta pausoak. Balletean, elementu horiek denak batera egitea da kontua, taldea da gakoa. Salto bat lauri bakarria ateratzen bazaie, ez du kontatzen.



▲ Izotz balletaz gain, irristaketa artistikoa ere egiten du Iera Garbisuk

Asko entrenatzen duzue? Eta nolakoak dira entrenamenduak?

Balleta ez da asko entrenatzen, pista ez baitago libre ordu askotan. Horregatik, igande gauez aritzen gara, astean behin, ordurik txarrean. Baina entrenamendu pertsonal asko egiten dugu: astelehenetan, asteazkenetan, ostegunetan eta ostiraletan; eta igandean berriz, goizean teknifikazioa, eta gauean balleta. Bakarka, astean zazpi bat ordu entrenatzen dugu, eta gero, taldean, programa montatzen eta egiten joaten gara. Koreografiak entrenatzaileek egiten dizkigute: kanta bat aukeratzen dute, gai bat hartu, eta programa montatu. 4-5 mintutu izaten ditu.

Ez da oso zabaldua dagoen kirola, izotz pistak ere ez baitaude asko. Ze txapelketa izaten dituzue, eta non?

Bakarkakoan Iparraldeko liga dugu, guztira bost lehiaketa izaten dira –aurten lau izan dira, Jakakoa ez da egin eta–. Gasteizko, Donostiako, Uharteko eta Logroñoko lehiaketak izan ditugu aurten. Bakoitzean puntuaketa bat jasotzen duzu, eta hori gehitzen doa. Ligako sailkapenaz gain, Nafarroako patinatzaileok gure sailkapen propioa ere badugu hor.

Maiatzean Lleidan izotz balleteko Espainiako txapeldun izan zineten. Nolako esperientzia izan zen?

Lehiaketa oso ederra izan zen, oso ongi pasa baikenuen. Talde osoa joan ginen hara eta lotarako lekua elkarrekin genuen, hotel berean. Beste taldeen entrenamenduak ikustera joaten ginen pista, igerilekuan ibili ginen gustura...

“ Dantzaren eta irristaketaren arteko zerbait da izotz balleta, eta taldea da gakoa kasu honetan ”

esperientzia polita izan zen, bai. Lehiaketan, gure programa bukaeran susto bat izan genuen: lore bat zeraman aterki bat genuen bukaeran lurrean uzteko, bada, feltrozkoa zenez, izotzean itsatsita gelditu zen eta gero hartzea zegokigunean aterkia hautsi egin zen. Hor pentsatu genuen ez genuela irabazteko inongo aukerarik izanen, baina umorez hartu genuen kontua. Eta azkenean, hara! Irabazi egin genuen, eta bigarren taldeari alde dezentea aterata gainera.

Nolako izan zen ikuskizun hura, zein zen istorioa?

Gu loreak ginen. Hasieran lore-hostoak gordeta genituen, lore-begiak ginen eta lurrean etzanda geunden. Orduan, taldeko bi kide gu ureztatzen hasten ziren, eta altxatu eta dantzan hasten ginen besteok. Guztiok gauza bera egiten genuen, baina bazen lore bat gauzak beste modu batean egiten ari zena. Lore-hostoak irekitzeko momentua iristen zenean, guztiok koloretako hostoak genituen, baina bereak berdeak gelditzen ziren. Hasieran baztertu egiten genuen desberdina zen hori, baina azkenean, lau kidek lore-hosto bana eman eta lau kolore desberdinetako hostoak gelditzen zitzaizkion.



Zer aurkituko dugu webgunean?

Hiru komunikabide bultzatzen ditu eskualdean Amezta Kultur Elkarteak. Pulunpe, Esan Erran irratia eta amezti.eus agerkari digitala. Azken horretan, digitalean, aurkituko dituzuen edukien laburpen bat egingen dizuegu hileroko atal honetan.

Garai berrietara egokitzeko eta egungo komunikazio bidez ere baliatzeko asmoarekin jaio zen amezti.eus webgunea. Ultzama aldeko albisteen berri izateko, egunean eta sakelekoan bertan. Era berean, Esan Erran irratia online entzuteko aukera ematen

du, FM frekuentziaren arazoak saihestuz. Gure irratiko zuzeneko emisioa entzun daiteke 24 orduz, eta, gainera, bertan zintzilikatzen dira Egun Ero irratsaio guztiak eta bertan eskainitako elkarrizketak eta kolaborazioak, noiznahi entzuteko. Bestalde, paperean etxeetara iritsi

baino lehen, Pulunpe ere PDFan irakurtzeko aukera ematen du webguneak.

Hemen duzue azken hilabetean igo ditugun edukien artean aurkituko duzuenaren laburpen txiki bat.

Argazki galeriak

Ultzamaldeko azken albisteen berri emateko sortu zen, nagusiki, amezti.eus. Horieta bi izan dira Ultzamako lehenengo kuadrillen eguna eta Lantzen urtero ospatzen duten euskararen eguna. Irudi politikak utzi zizkiguten egun berean ospatu ziren bi ekimenek, eta, horregatik, bi argazki galeria sortu ditugu. Kuadrillen egunean

Patxi Ariztegik egindako bideoa ere ikus dezakezue argazki galeriaren beheko partean, erlazionatutako edukietan.

Udako eta datorren urteko ikastaro eskaintzen berri izateko ere sartu zaitezke amezti.eus-en; esate baterako, Latasan umeei zuzenduta udan egingen diren zirku tailerren inguruko informazioa; eta, AEKko datorren ikasturterako eskaintza ikusiko dituzue.

Egun Eroko elkarrizketak

Hiru komunikabideotan tokiko gaiak izaten dira nagusi, eta, hilabete honetan ere horrela izan da. Esan Erran Irratian Axolagabe taldea elkarrizketatu genuen, ikasturte bukaeran egin ohi duten emanaldia baitzuten Larraintzarren. Arrakasta handikoa izaten da, herritar asko hurbildu ohi dira obra ikustera, eta, aurten ere horrela izan zen. Hiru pase eskaini zituzten: ekainaren 9an bat eta beste bi ekainaren 10ean.

Gainera, gure mugetatik at doazen gaiak ere izaten dira albiste gurean. Sagarrika elkarteak sortu dute Nafarroako sagardo sagarra bultzatzeko, eta bertan parte hartuko du Oskozko Leire Iribarrenek. Berak azaldu zizkigun elkartearen helburuak.



◀ Lanzko euskararen egunaren argazki galeria ikusteko



◀ Ultzamako kuadrillen egunaren argazki galeria ikusteko





Egun Eroko kolaborazioak

Hogei bat kolaboratzaile ditugu Egun Ero irratsaioan, gai zehatz baten inguruan hilabetean behin hitz egiten dutenak. Denboraldiko azkenak izan ditugu ekainean. 'Spoiler Alert' atelean, Jule Goñik hilero pelikula eta telesailak gomendatzen dituen atelean, *Drôle* eta *Blinded* telesailak, eta *Monsieur Ibrahim* eta *Koranaren loreak*

filma izan dira proposamenak. Bestalde, 'Mexikortxorekin iraultzan' atelean, Mexikortxo bandako kideek Che Guevararen inguruko monografikoarekin despeditu dute denboraldia. Zer iraultzarekin etorriko dira irailean?



◀ Mexikortxorekin iraultzan, Che Guevararen inguruko monografikoa entzuteko

amezti MEXIKORTXOREKIN IRAULTZAN



Pulunpeko PDF guztiak

Hilabetekariaren argitalpen guztiak dituzue amezti.eus-en, PDF formatuan. Azkena ere bertan aurkituko duzue.



◀ Pulunpe guztiak pdf-an

Zorionak Zorionak!



Zorionak Lorea eta Malen!



Zorionak Naroa!



Zoriondu zure laguna Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Detektibe atipiko bat

Azken urteotan arrakasta eta irakurle ugari izan dituen narrazio generorik bada, nobela beltza da. Badira detektibeak eta krimenak eta misterioak ia egunero argitu beharrekoak hiri, herri edo bailara guztietan, txikienetan ere bai. Errealitatean baino gehiago. Edo ia gabe. Deigarria da, halaber, irakurleek, oro har jende baketsua, krimenez eta indarkeriaz beteriko eleberriak aukeratzea, irakurtzea erlaxatzeko edo lasaitasunerako tarte bat izan beharko lukeenean. Baina generoaren arrakasta, duela hiru hamarkada eskas kioskoko literaturara ia baztertua zegoena, ukazina da. Euskal literaturan ere bai.


Euskal literatura beltzaren azken fenomeno arrakastatsuetako bat, zalantzarik gabe, Toure detektibe afrikarraren seriea da, Jon Arretxek idatzia. Honen egokitzapen bat hasi da filmatzen ekainean, Bilboko San Frantzisko auzoan, ikerlari berezi hau bizi den lekuan (nahiz eta bere abenturetako batzuk Parisen, Madrilen edo Nafarroako Pirinioetako herri lasai batean ere gertatu diren. Azken hori Arbizuren antz handia izan dezake, Arretxe hogei urte baino gehiagoz bizi izan den herrian).

Jon Arretxek pertsonaia berarekin eleberri sail bat idazteko asmoa agertu zuenean, protagonista eleberri beltzaren ohiko pertsonaia ez izatea izan zen gailendu zen baldintzetako bat: polizia edo polizia ohi bat, alkoholikoa, etab. Horrela asmatu zuen Toureren irudia, Afrikari zion maitasunak bultzatuta, kontinente horretara bidaiatu baitu eta sarritan idatzi baitu, baita bere semea afrikarra izateagatik ere. Arretxeren eleberrien beste ezaugarrietako bat da genero beltzari dagokion

zerbait mantendu duela, eta agian nobela beltzaren boomarekin galdu dena, non thriller-ak gailentzen diren. Arretxe, aldiz, arazo sozialak islatzen dituzten eleberriak idazten saiatzen da, arrazakeriarena, adibidez.

Toure sailaren atal bakoitzean gero eta pisu handiagoa hartu duen zerbait da hori, bederatzi nobelaz osatua. Egia esan, Tourerekin hasi baino lehenago, Arretxek beste nobela beltz batzuk idatzi zituen, generoaren parodiara gehiago hurbiltzen zirenak, hala nola *Kleopatra* edo *Manila konexioa*. Eta hori baino lehen, bidaiia-liburuak edo *Ostiralak*, *Ostegunak* eta *Larunbatak* nobela ganberroak. Horieiesker, idazteari ekin ahalizan zion. *612 kamararekin*, Toureren lehenengoa, umorea mantentzen den arren, bere eleberrietan beste kezka batzuk sartzen hasi dira, hala nola etorkinen egoera edo auzo deprimituetako bizimodua.

Lyrice garaiak Toureren azken abentura da. Bertan, detektibe afrikarra San Frantziskora itzultzen da (auzo horretan Arretxek in situ idatzi ohi ditu eleberri hauek) eta auzo batean aurkitzen da, gentifikazioak, droga berri baten etorrerak (*Lyrice*) edo La Palancako prostituten kezkek auzoko azken putetxeak





desagertzeko mehatxuagatik jazarrita.

Touré ez da detektibe atipiko bakarra euskal literaturan. Itxaro Borda idazle iparraldetarraren kasuan, *Bakean utzi arte*, Amorezko pena baño, *Boga boga* bezalako eleberrien protagonista Amaia Ezpeldoi da, komunikazio arazoak dituen detektibe bisexuala, abertzalea eta Baionako kaleetan kale garbitzaile gisa lan eginez bizimodua irabazten duena.

Eta horrela, euskal polizia-eleberriaren beste egile eta protagonista batzuk zerrendatzen jarrai genezake, hala nola Alberto Ladrón Arana, Txema Arinas,

Aingeru Epaltza edo euskal letren idazle handien generoan sartu-irtenak, hala nola Harkaitz Canorena (*Pasaia blues*). 1955ean Jose Antonio Loidik *Hamabost egun Urgainen* euskarazko lehen nobela beltza idatzi zuenetik, mundu bat dago eta gure liburutegiko apaletan aurki dezakezue.

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburutegia

UDAKO ORDUTEGIA

Ekainaren 19tik irailaren 18ra,
10:30tik-13:30ra


Del 19 de junio al 18 de
septiembre, de 10:30h a
13:30h

Liburutegia itxita:

Ekainaren 30an / 30 de junio
(Jornada de formación)

Uztailaren 6an eta 7an eta
17tik 21era / 6 y 7 de julio y del
17 al 21

Abuztuaren 4an eta 7an eta
abuztuaren 21etik irailaren 1ra
/ 4 y 7 de agosto y del 21 de
agosto al 1 de septiembre



2023ko maiatza

2023ko maiatzean gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

BASABURUA Gartzaron

Liher Legarra Martinez, Gartzarongo **Martxonean** jaioa maiatzaren 29an. Eneko eta loritzen semea.



▲ Liher, Pakita birramatxiren altzoan. Aldame-nean bere ania loar

ULTZAMA Iraizotz

Harkaitz Beratsain Arbilla, **Migelenan** sortua maiatzaren 29an. Eneko eta Maitaneren semea



▲ Maddi pozarren Harkaitz anaittoa altzoan duela

Larraintzar

Emma Saioa Paz Cordero, maiatzaren 6an sortua. Emanuel eta Mayraren alaba



▲ Emma Saioa amaren besoetan

“ Zorionak gurasoei ”

Suarbe

Libe Altuna Hualde, **Polloneko bordan** sortua maiatzaren 19an. Unai eta Laidaren alaba.



▲ Libe traktorean, familia guziarekin

Ezkontzak:

Guk dakigula, maiatzean ez zen ezkontzarik izan.

Heriotzak:

IMOTZ Etxaleku

Alberto Agote Iriarte, **Oihanarteko** nagusia, maiatzaren 27an hil zen, 65 urtetan.



▲ Alberto

Urritza

Margarita Urritza Mugertza, **Mugertzaren etxe**ko alaba, maiatzaren 18an hil zen, 100 urtetan.



▲ Margarita

“ Zuen maitasuna, gelditzen zaiguna. ”

ULTZAMA Alkotz

Maria Rosa Sola Arriazu, **Matxindroneko** etxeoandrea, maiatzaren 11n hil zen, 83 urtetan.



▲ Rosa Sola

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com





irailak 23 • jazztatu!

jazz mugikorra Imotzen, Basaburuan eta Ultzaman barna
Omen kolektiboaren Dardar proiektua

urriak 7 • bertso saio musikatua

Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal eta Julio Soto
Santurbeko baselizan (Odieta)

urriak 21 • 25. urteurren festa

herri-kirolak, dantzak, bazkaria, kontzertuak...
Eritzegoitin (Atetz)